



APYMA KOMUNIKAZIOA

IKASLEEN GURASO ELKARTEA

22zkoa 2010eko azaroa

2010ko Batzarra

Pasadan urriak 25ean Apymaren batzar nagusia ospatu zen. Parte-hartzea, beste urteekin konparatuz, arrakasta handia izan zuen, hala ere, guraso asko faltan sumatu genituen. Espero dugu datorren urtean guraso gehiago etortzea. Landu ziren gaiak, gehien bat gai-zerrendakoak izan ziren. Gainera, Amaia Arzamendik eta Lucia Lopezek parte hartu zuten. Eskerrak eman nahi diegu ikastetxearen martxa azaltzeagatik eta gurasoen galderak erantzuteagatik.

2009-2010 kontuak eta 2010-2011 aurrekontuak gainditu ziren. Elena Gascaren kargua, Apymaren ordezkaria eskola-kontseiluan, eta Iñaki Zalduaren kargua, Apymaren lehendakariordea, berretsi ziren.

Apymak dituen komisio desberdinak aurkeztu ziren; Apymaren web orria, Ingelesa, Euskara, danborrada, zinea. Horretaz gain elkarteak antolatzen dituen ekintzak ere azaldu ziren: Apyma crossa, Haur hezkuntzaren eta Lehen hezkuntzaren jaia, crhistmasen lehiaketa. Gainera bi komisio berri ezagutzera eman ziren: liburuak berriro erabiltzeko proiektua eta heziketarena.

Parte-hartzaileak beste gaiak jorratu zituzten: kendu den kotxeen zerbitzuari buruz hitz egin zen, baita ere beti jolasean prezioaz, altzariaz, ordutegia luzatzeaz, motxilen pisuaz, liburutegiaren ordutegiaz, materialen zerrendaz eta irakurtzeko liburuaz.

Parte hartzaileen gai interesgarrienak

Batzar nagusiaren sarreran, parte-hartzaileei kezkatzen edota interesatzen zitzaizen gaiak, idatziz jaso genituen. Zuen kolaborazioa eskertu nahi dugu izan ere, orientazio bezala balio izan zaigu, honela aurrerantzean lan talde berriak sortzeko aukera izango dugu. Hona hemen proposatu ziren gaiak (zerrenda, gehien atera ziren gaitik gutxienera ordenatuta dago)

- Ingelesa
- Liburuak berriro erabiltzea
- Jangela (arreta, kalitatea eta prezioa)
- Uniformea
- Euskara
- Kirolak
- Ordutegiak eta ikastetxearen sarbideak
- Motxilen pisua
- Irakasletza
- Ikastetxe kanpoko ospakizunak
- Elkarbizitza -diziplina
- Ikasleen dibertsitateari arreta
- Material didaktikoaren ordainagiria

Batzar nagusiaren Parte-hartzaileak

Kurtxoak	Parte hartzaileak	Etapak Parte hartzaileak
1go Haur Hezk	%9	%24
2. Haur Hezk	%7	
3. Haur Hezk	%8	
1go Lehen Hez	%10	%50
2. Lehen Hezk	%6	
3. Lehen Hezk	%7	
4. Lehen Hezk	%7	
5. Lehen Hezk	%7	
6. Lehen Hezk	%13	
1go DBH	%7	%21
2. DBH	%3	
3. DBH	%4	
4. DBH	%7	
1go Batxiller	%4	%5
2. Batxiller	%1	

Apymaren web orria

Urte bete zehar lan egin ondoren jadanik Apymaren web orria amaituta dago. Bertan Apymaren komisio desberdinen informazioa aurkituko duzue baita ere Apymaren berriak kontsultatzeko aukera izango duzue.

www.apyma-csiss.org

Euskararen batzordea

Euskararen batzordea, euskararen erabilera sendotzeko ikastetxearekin elkarlanean jarraitzen du. Euskararen batzordearekin harremanetan jartzeko: apyma-sanignacio@hotmail.es

Zinea

Zine denboraldia arrakasta handiz estreinatu da. Aurten kolaboratzaile berriak behar ditugu, momentu honetan dauden boluntarioak berriro behar direlako. Interesatuak dauden gurasoak gure helbidera idatzi dezakete: apyma-sanignacio@hotmail.es. Gure web orrialdean, www.apyma-csiss.org, proiektatuko diren filmak eta datak ikusteko aukera izango duzue.